

2002-06-01
kioskoa**Eneko Bidegain**

Baloia euforia eta itzalak

Atzo goizeko Frantziako egunkariak ez zeuden futboleko mundialeko lehen partidaren galtzearen zain. «Eta bat, eta bi, eta...» gisa horretako titularrak nagusi ziren kioskoetan, Frantzia bigarren aldikotz txapeldun aterako delako gogoia eta esperantza agertuz. Duela lau urteko euforia gogora ekarriz, futbola-erentzat dena espantu ziren editoriak. Baloia «magia, miresmena eta freskotasuna» aipatu zituen **Le Figaro**-k. «Futboleko mundiala herri guztiek zuzenean partikatzen duten emozioa da, aberatsek pobreek bezala, Iparrak Hegoak bezala» gehitu zuen **La Nouvelle République**-ek. Honen ustez, futbolaren inguruko bestak «lotura soziala» bermatzen du. **Liberation**-ek azpimarratu zuen Nazio Batuen Erakundeak 189 estatu dauzkala, eta Fifak «203 nazio onartzen dituela, palestinarrek eta israeldarrek barne».

Halere, «ez da ametsik egin behar, futboleko dirua demokraziari nagusitzen baitzaio», adierazi zuen **Liberation**-ek. **La Nouvelle République**-ek ere gogora ekarri zuen zenbat milioi euro dauden jokoan. **Sud Ouest**-ek bertze itzal bat aipatu zuen. Duela lau urteko garaipenaren ondotik «uste genuen frantsek elgarrekin bizitzeko beste modu bat aurkitu zutela». Baina euforia hark «idea xenofoboak parentesien artean» ezartzea baizik ez zuen eragin. **La Nouvelle République**-n arabera, mundialak «herri askotako arazo politiko, ekonomiko eta sozialak estaliko ditu. Pena da».

Halere, badira beren editorialetan Aljeriako hauteskundeak, Frantziako hauteskundeetako buruz UMP eta FNaren inguruko gogoetak, etorkinen gaia jorratzea ahanzten ez duten egunkariak.

martintxo



hizpideak

Apezpikuen ausardia

Euskal Herriko egoera gatazkatsuen azterketa orekua egiten ahalegintzea garesti ordaindu dute Bilboko, Gasteizko eta Donostiako apezpikuek. ETaren indarkeria gogor gaitzestearekin batera, ETaren aurka dena ez dela zilegi ohartarazi dute, eta Batasuna legez kanpo uzteak ondorio kaltegarriak ekarriko dituela esatera ere ausartu dira. Urrutiegia joan dira, nonbait, pentsamendu bakarrek mezuak inposatu nahi dituztenentzako. Espainiako indar politiko eta mediatiko nagusiek, Aznarren Gobernua buru dela, apezpikuen aurkako erasoari ekin diote. Helburua, hurrengoan ez daitezela ahotsik altxatzen ausartu.

Arkeologoaren iritzia ere ez dute kontuan hartzen

Iruñeko Gazteluko plazan lanean ari diren arkeologoek uste dute han aurkitutako terma erromatarrek ez direla altxatu behar. Adituen iritzia, ordea, ez da nahikoa Nafarroako agintari politikoentzat. Juan Ramon Corpas Principe de Viana erakunde buruak atzo esan zuen presioaren ondorio dela arkeologoaren jarrera. Horrek agerian uzten du zein den Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernua jarrera: kosta ahala kosta aurrera egingo dute Gazteluko plazako lanekin, Nafarroako historiaren zati bat aurretik eraman behar badute ere.



Emakume bat hauteskundeetako bozka zenbatzen Aljerian.



Miarrizteko jokalaria Stade Francaise-aren aurka jokatu partidaren.

Egunkaria 3.566 zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E. Lege Gordailua. SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

FLN garaile Aljerian

FLN Nazio Askapenerako Fronteak gehiengo absolutua lortu du Aljeriako Legebiltzarrerako ostegunean egindako bozetan. Antzinako sistemako alderdi bakarra izan zen 199 diputatu bereganatu ditu eta lehen indarra zen RND Batasun Nazional Demokratikoak, 48. Aljeriako oposizioko alderdi nagusiek «fartsatzat» jo dituzte bozak eta boikoterako deia egin dute. Hori dela-eta, 1962. urtean Frantziatik bereizi zenetik parte-hartze txikiena izan da Aljeriako bozetan, botoemaileen %46k baizik ez dutelako bozkatu. FFS Indar Sozialisten Frontea alderdiko kide eta ostegunera arte diputatu izandako Dalila Talebek «hauteskunde iruzurra» salatu du eta herrialdea berriro ere alderdi bakarraren sistemara itzultzeko beldurra dela adierazi dio EGUNKARIARI.

Miarritze finaletik hurbil

Azken hamarkadan Euskal Herriak Miarritze eta Baiona ukan ditu talderik indartsuenak, eta ez soilik Euskal Herrian, baita Frantziako Maila Nagusian ere. 1992an elkarren kontra jokatu zuten final-laurdena, eta Miarritzek finala jokatu zuen handik gutxira, Parisen. Gero, Baionak eutsi egin zion Maila Nagusian eta Miarritze jaitsi egin zen. Bizitzak aldaketa asko ematen dituela jakina da, orain Miarritzek baitihardu Maila Nagusian. Iaz finalerdia jokatu zuen Montferranden aurka, eta galdu egin zuen, Lyonen. Gaur elkarren kontra ariko dira berriro, baina Miarrizetik hurbil, Bordelen. Miarriztarrek zuri-gorritz bete dute Bordeleko Chaban Delmas zelaia, baina Euskal Herri osoak irabaziko du finalera helduta. Galtzen badu, kirola horrelakoa dela esango dugu, eta segi aitzinera.